

2024ko maiatzaren 30a. Ohiko Batzar Nagusiaren laburpena / Resumen Asamblea General Ordinaria. 30 de mayo de 2024.

2024ko maiatzaren 30ean egindako Batzar Nagusian, Kontseilu Errektoreak proposatutako akordio guztiak onartu ziren, eta, horrez gain, Errekurtso Batzordea eta Kontseilu Errektorea berritu ziren.

Alderdi esanguratsuenak azpimarratuko ditugu:

Eroski Koop. E-ren urteko kontuak

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu ziren Eroski Koop. E-ren 2024ko urtarrilaren 31n itxitako 2023ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kontu bateratuak.

Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko memoria.

2023ko ekitaldiari dagokion Informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko memoria gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartzea erabaki da, abenduaren 28ko 11/2018 Legean ezarritakoaren arabera.

2023ko emaitzen banaketa.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartu da proposatutako emaitzen banaketa, erabaki honen bidez:

ERABAKIA:

1) "Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 2023ko ekitaldiaren emaitza positiboa (78.532.469,69 euro) banatzea onartzea, honela:

SOBERAKIN GORDINAK:

2024ko urtarrilean ordaindu ziren eta funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzea.

8.092.968,09 €

SOBERAKIN GARBIAK

Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzea

70.439.501,60 €

Aurreko erabakia onartu ondoren, emaitzen banaketa honela islatuko da:

EROSKI KOOP. E-ren EMAITZEN BANAKETA	2023
SOBERAKIN GORDINAK: <i>2023ko urtarrilean ordaindu ziren eta funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzeko.</i>	8.092.968,09 €
SOBERAKIN GARBIAK: <i>Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko.</i>	70.439.501,60 €
Ekitaldiaren emaitza	78.532.469,69 €

Ordaindukoen Programaren ezarpena eta Programaren mendeko jaulkipenak onartzea.

Gehiengoz eta aurkako jarrerarik gabe onartzen da Errenta Finkoko Merkatu Alternatiboan (MARF) ordaindukoak jaulkitzeko Programa bat ezartzea, bai eta programa horren mendeko ordaindukoak jaulkitzea ere –hurrengo berritzeak barne–, Programaren gehieneko zenbateko nominalaren balioidea den zenbatekoarekin (hau da, 100.000.000 euro), behin edo gehiagotan, Programa sartzan den egunetik gehienez ere 4 urtez.

Horrez gain, onartu da Kontseilu Errektoreari baimena ematea, bere kide bakoitzaren edo hirugarren batzuen ordezte- edo azpieskuordetze-ahalmenarekin, (i) ordaindukoen programari dagokionez Batzarrak erabaki ez dituen termino, baldintza eta alderdi guztiak finkatzeko; eta (ii) jaulkipenak exekutatzeko, ordaindukoak zirkulazioan jartzeko eta horiei dagokienez Batzarrak erabaki ez dituen termino, baldintza eta alderdi guztiak finkatzeko (ekonomikoak, legezkoak edo beste edozein); eta, bi kasuetan, Programaren jaulkipena exekutatzeko eta jaulkipenak berritzeko beharrezkoak diren alderdi osagarri guztiak gauzatzeko.

Baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabili beharreko gehieneko zenbatekoa zehaztea eta haien itzulketa egitea.

Kontseilu Errektoreak zehaztutako kaudimen-atalasea eta likidezia-atalasea kontuan hartuta, Batzar Nagusiak 10,4 milioi euroan finkatu du erreferentzia-aldian kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den zenbateko osoa.

Era berean, erabaki du ez itzultzea 2023ko maiatzaren 25ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2024ko maiatzaren 23ra arte adostu dituenak, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoan eta itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte.

ERABAKIAK:

- 1) "10.400.000 (hamar milioi eta laurehun mila) eurotan finkatzea 2023ko maiatzaren 25ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den gehieneko zenbatekoa, bai eta Kontseilu Errektoreari 2024ko apirilaren 20ra arte eskatu zaizkion eta 2024ko maiatzaren 23a baino lehen onartu diren bajen kasuan ere".
- 2) "2023ko maiatzaren 25ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideei eta Kontseilu Errektoreari 2024ko apirilaren 20ra arte eskatutakoei eta 2024ko maiatzaren 23a baino lehen onartutakoei egindako ekarpenak itzultzea erabakitzea, guztira 10.400.000 (hamar milioi eta laurehun mila) euroko zenbatekora arte, Eroski Koop. E-ren Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 3) "2023ko maiatzaren 25ean egindako Batzar Nagusiaren ondoren kooperatiban baja eman duten bazkideen ekarpenak eta Kontseilu Errektoreak 2024ko maiatzaren 23ra arte adostu dituenak itzultzea ez erabakitzea, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoaren gainerako zenbatekoan eta itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Lan-bazkide berrien nahitaezko ekarpenak eguneratzea.

Lan-bazkideen ekarpenak eguneratzea erabaki da, sarrerako kuota gisa **2.473,86 euroko** kopurua eta kapital sozialerako nahitaezko ekarpen gisa **9.895,43 euroko** kopurua ezarriz; beraz, 2024ko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko nahitaezko ekarpen osoa **12.369,29 eurokoa** izango da.

Eguneratze hori erabaki honen bidez onartu da:

ERABAKIA:

Bakarra. - "Lan-bazkideen ekarpenak eguneratzea, sarrerako kuota gisa 2.473,86 euroko kopurua eta kapital sozialerako nahitaezko ekarpen gisa 9.895,43 euroko kopurua ezarriz; beraz, 2024ko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko nahitaezko ekarpen osoa 12.369,29 eurokoa izango da.

Funts Propio diren EMFEen ordainketa

2007an jaulkitako Mendeko Finantza Ekarpenak dira. Aurten, 2025eko ekitaldirako EMFE horien ordainketa onartu da, eta 2026ko urtarrilaren 31n abonatuko dira, erabaki hau onartu ondoren:

ERABAKIA:

Bakarra. - "2007an jaulki ziren eta Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpenen 2025eko ekitaldiari dagokion ordainketa onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatu beharko dira, eta 2026ko urtarrilaren 31n abonatu da".

Errekurtso Batzordea berritzea.

Egindako bozketaren ondorioz, honako bazkide hauek izendatu dira Errekurtso Batzordeko kide, Estatutuetan ezarritako bi urteko gehieneko eperako:

Bazkide kontsumitzaileak Personas socias de Consumo	Lan-bazkideak Personas Socias de Trabajo
Titularra/Titular	Titularra/Titular
<i>M^a Teresa Marcos Rodriguez</i>	<i>Pilar Arriola Díaz</i>
Ordezkoa/Suplente	<i>Ignacio Mesanza Olave</i>
<i>Iratxe Acha Piquero</i>	Ordezkoa/Suplente
	<i>Miren Josune Arruabarrena Bengoa</i>

Kontseilu Errektorea berritzea

Egindako bozketaren ondorioz, honako bazkide hauek izendatu dira Kontseilu Errektoreko kide, Estatutuetan ezarritako lau urteko gehieneko eperako:

Bazkide kontsumitzaileak Personas socias de Consumo	Lan-bazkideak Personas Socias de Trabajo
Titularra/Titular	Titularra/Titular
<i>Maite Legarra Eizaguirre</i>	<i>Olaia Betanzos Chertudi</i>
<i>Olga de Miguel Hernández</i>	<i>Ana Isabel Zariquiegui Asiain</i>
<i>Amaia Ramos Romero</i>	<i>Carmelo Lecue Alberdi</i>
Ordezkoa/Suplente	Ordezkoa/Suplente
<i>Amets Ugalde Etxagibel</i>	<i>Maialen Villanueva Etxebarria</i>
<i>M^a Jesús Zabaleta Pais</i>	<i>Cristina Lorenzo Gallego</i>